




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Nola kalkulatu da zaurgarritasun-indizea?

2024-2025 ikasturtea



Nola kalkulatu da zaugarritasun-indizea?

Ikasle zaugarriak

Zaugarritasun-indizeak desabantaila-egoeran dauden ikasleen proportzioa adierazten du, errendimendu akademikoan eragina duten aldagaiak kontuan hartuz.

Egoera honetan hainbat ikasle mota dago, ondoko ezaugarri edo premia bat edo batzuk izatearen arabera:

- hezkuntza-premia bereziak
- heldze-atzeratasuna
- hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmenduak
- arreta- edo ikaskuntza-nahasmenduak
- ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun handia
- gizarte- eta hezkuntza-zaugarritasun egoeran egotea
- adimen-gaitasun handiak
- hezkuntza-sisteman berandu sartu delako
- egoera pertsonalengatik edo eskola-historiagatik

Ikastetxeen arteko zaugarritasuna orekatzeko prozesuan, prozedurara egokitzen diren informazioekin lan egin behar da; beraz, zaugarritasunaren kontzeptua zabalagoa den arren, ikasturte honetako onarpen-prozesuan erabiliko den erreferentzia haur-hezkuntzako bi eta hiru urteko ikasleak dira.

Adin horretan, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren (HLBP) diagnostikorik ia ez dago; txosten mediko baten bidez detektatu, diagnostikatu eta egiaztatutako egoerak eta egoera sozioekonomiko oso prekariorik ondoriozta daitezkeenak baino ezin dira kontuan hartu. Kalkulu horrek, etorkizunean, ikastetxeko hezkuntza-maila guztiak barne hartu beharko ditu, detektatutako HLBP ikasleak ere kontuan hartuz eta, horrela, ikastetxe bakoitzaren zaugarritasun-egoeraren deskribapen osatuagoa lortu.

Horregatik, hasiera batean ikasleak ikastetxeetara sartzeko erabiltzen diren zaugarritasunaren kontzeptua, funtsean, zaugarritasun sozioekonomikoan oinarritzen da. Hori kalkulatzeko, familien egoera sozioekonomikoaren azterketan dagoen esperientzia luzea aprobetxatzen da, indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) kalkuluaren bidez. Indize horrek oso ezaugarri antzekoak ditu hainbat herrialdetan eta nazioarteko ebaluazioetan, 2009az geroztik egiten ditugun ebaluazio diagnostikoez gain. Era berean, egonkortasun handia erakutsi du denboran zehar, baita erreferentziatzeko galdetegiaren egindako egokitzapenekin ere.

Zaugarritasun sozioekonomikoa eta kulturala duten ikasleen definizio kuantitatiboa

Indizea kalkulatzeko familiei hainbat gai buruzko galdetegi bat egiten zaie, honako informazioa biltzen duena: titulazio akademikoak, lanbideak, irakurketa-liburuak, Internetarako sarbidea, kontsulta-liburuak, literatura klasikoa, eguneroko prentsa eta aldizkari espezializatuak (paperean edo Internet bidez), ordainpeko telebista, ordenagailuak, *e-book*-ak, tabletak, *smartphone*-ak, automobilak, bainugelak, logelak, etab. Elementu bakoitzak oso informazio gutxi ematen du modu bakartuan, baina, multzoan, informazio sendoa eta egonkorra sortzen dute.

Galderak aldagaietan multzokatzen dira elkarren arteko erlazioaren arabera, eta haztatu egiten dira eskala komun bat sortuz, familia bakoitzerako balio bat ezarriz. Bost aldagai erabiltzen dira, eta bakoitzak antzeko pisua du familien balio bakar hori osatzeko. Ondoko taulan adierazten dira:

| Aldagaia | Pisua |
|---|--------------|
| Ikasketak eta prestakuntza | % 23,7 |
| Familiaren jabetzak | % 20,3 |
| Etxeko liburuak | % 19,3 |
| Familiaren ondasun ekonomikoak eta kulturalak | % 18,6 |
| Lanbideak | % 18,0 |
| Guztira* | % 100 |

* Hamartarren doikuntzagatik, batura ez da zehatza. Balioak hiru hamartarrekin erabiltzen dira.

Balio hori erreferentziatzat hartzen da ikaslea gizarte- eta ekonomia-aldetik zaugarritzat joko den zehazteko. Eskola-plaza eskatu duten Euskadiko familia guztiei buruzko datuak batera aztertuta, 15 pertzentilaren azpitik daudenak zaugarriak dira (hau da, indize txikiena duten familien % 15 artean daudenak). Informazioak nahiko ongi bereizten ditu ikasle zaugarriak eta ez-zaugarriak, baina, eten-puntu guztiekin gertatzen den bezala, ezarritako mugatik oso hurbil dauden balioek zalantzak sor ditzakete. Eten-puntu hori % 15ean ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko eskolatzeari eta biztanleria zaugarriari buruzko hainbat daturen azterketaren ondorio da (pobrezia-arriskuan dauden familiak (ARPE), gabezia material larria duten familiak, lan-intentsitate txikiko familiak, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak, immigrazioari buruzko datuak...). Hasierako detekzioa egiteko egokia den erreferentzia da, baina baliteke seme-alabak dituzten familien egoera sozioekonomikoaren bilakaerarekin batera bai aldagaien osaera, bai haien pisua, egokitu egin beharko dira etorkizunean.

Ikasturte bakoitzeko eten-puntuak oso hurbil daude, baina biztanleriaren banaketa desberdineraren egokitzen dira; zehazki, zero eta 5,24 puntu bitarteko eskalan, mozketak 1,98 eta 1,79 puntutan egon dira.

Zaugarritasun-indizearen kalkulua

Zaugarritasun sozioekonomikoaren indizea kalkulatzeko, zona edo ikastetxe bateko ikasle zaugarrien portzentajea hartzen da kontuan.

Zehazki, **eragin-eremu baten zaugarritasun-indizea** definitzen denean, eragin-eremu horretan erroldatutako ikasleak hartzen dira kontuan; erreferentzia ez da eragin-eremuan eskolatutako ikasleak, baizik eta eremu horretan benetan bizi direnak. Helburua da ikasleen eskolatzea orekatzea eremu berean bizi direnak kontuan hartuta.

Bestalde, **ikastetxe baten zaugarritasun-indizea** kalkulatzeko erabiltzen den erreferentzia ikastetxe horretan aipatutako adina duten eskolatutako ikasleak dira (ikasturte honetan 2 eta 3 urte); hau da, zaugarritasun sozioekonomikoa duten adin horretako ikasleen proportzioa ikastetxean eskolatuta dauden ikasle guztiekiko.

Zaugarritasun-indizea eta onarpen-prozesua

Ikastetxe batzuen eta besteen matrikula orekatzeko asmoz, zaugarritasun-indizearen erreferentzia bi urteko gelan erabili zen lehen aldiz 2023/2024 ikasturtean, horretarako eskaera egin zuten ikasleei buruzko kalkuluen bidez. Erabaki hori hartu da ikasle gehienak hezkuntza-sisteman sartzeko ikasmaila 2 urteko gela dela kontuan hartuta. 2023/2024 ikasturtean onarpen-prozesua hiru urteko ikasleei ere zabaldu zaie, etorkizunean ikasturte bakoitzean prozesua urte bat gehiagori helaraztea helburua delarik.

Onarpen-prozesuan, bi urteko ikasgeletan matrikula egitea eskatzen duten ikasleentzako indizeak kalkulatu dira, biztanleria osotik hurbilen dagoen erreferentzia baita, eta eskolatutako ikasleen ezaugarri dagokienez, ikastetxeen orekan eragin daiteke. Horrela, egungo egoera orekatzeko prozesua malgutasunez eta pixkanaka egingo da datozen urteetan. Era berean, hiru urteko matrikulan sartzen dira lehen eskola-ikasturtean jadanik diagnostikatutako ikasle zaugarriak.

Datu horietatik abiatuta, bai zentroaren eta bai eragin-eremuaren zaugarritasun-indizea lortzen da. Ikasturte honetako datuak azken taulan jasotakoak dira. Errazago ulertu ahal izateko, ondoko definizio hauek sartu dira:

| | |
|--|--|
| <p>Zonaldeko zaugarritasun-indizea Índice vulnerabilidad área</p> <p>2024</p> | <p>2024/2025 ikasturterako bi urteko gelan eskolatzea eskatu duten ikasleen arabera kalkulatuako zaugarritasun-indizea da. Ikasleak erreferentziako arean bizi dira.</p> |
| <p>Zonaldeko zaugarritasun-indizea Índice vulnerabilidad área</p> <p>2023</p> | <p>2023/2024 ikasturterako bi urteko gelan eskolatzea eskatu duten ikasleen arabera kalkulatuako zaugarritasun-indizea da. Ikasleak erreferentziako arean bizi dira.</p> |
| <p>2023ko Eragin-eremua Área de influencia de 2023</p> | <p>2023/2024 ikasturteko eragin-eremua jaso da, eta 2024/2025 ikasturterako bereizi da, hobeto kudeatzeko.</p> |
| <p>Eragin-eremuaren ikastetxeak Centros del área de influencia</p> | <p>Ikastetxeen kopurua hiru baino txikiagoa denean ez dira datuak adierazten, zentroen konfidentzialtasuna mantentzeko, eremu horietako gehienak zentro bakar batek osatzen baititu. Bi urteko ikasgelako onarpen-prozesuan parte hartu duten ikastetxe publikoak eta itunpekoak sartu dira.</p> |

Taulan ikasturte honetako eta aurreko ikasturteko indizeak aurkezten dira, aldea ikusi ahal izateko. Datu hori biztanleriaren banaketaren arabera da, eta eragin handiagoa du biztanle gutxien bizi diren eremuetan.

ERANSKINA: ERAGIN-EREMUEN ZAURGARRITASUN-INDIZEA

| Lurralde Territorio | Eragin-eremua Área de influencia | Zonaldeko | Zonaldeko | 2023ko Eragin-eremua Área de influencia 2023 | Eragin-eremuaren ikastetxeak Centros del área de influencia |
|------------------------|---|---|--|--|--|
| | | zaurgarritasun-indizea Índice vulnerabilidad | aurgarritasun-indizea Índice vulnerabilidad | | |
| Araba | Amurrio | 11,1 | 26,8 | | 5 |
| Araba | Gasteiz: Eskola zunaldea 1 | 23,3 | 27,8 | | 17 |
| Araba | Gasteiz: Eskola zunaldea 2 | 23,8 | 26,7 | | 9 |
| Araba | Gasteiz: Eskola zunaldea 3 | 12,1 | 15,8 | | 12 |
| Araba | Gasteiz: Eskola zunaldea 4 | 14,6 | 13,5 | | 12 |
| Araba | Laudio | 14,6 | 10,1 | | 5 |
| Bizkaia | Barakaldo - San Vicente | 20,7 | 13,3 | Barakaldo | 15 |
| Bizkaia | Gurutzeta - El Regato | 30,2 | 13,3 | Barakaldo | 7 |
| Bizkaia | Arizgoiti | 18,0 | 20,5 | Basauri | 7 |
| Bizkaia | Kurtzea | 16,1 | 12,9 | Galdakao | 3 |
| Bizkaia | Algorta | 5,4 | 5,5 | Getxo | 6 |
| Bizkaia | Andra Mari | 0,0 | 5,5 | Getxo | 4 |
| Bizkaia | Areeta-Romo | 10,5 | 5,5 | Getxo | 4 |
| Bizkaia | Abanto Zierbana | 22,0 | 11,1 | | 3 |
| Bizkaia | Amorebieta | 8,6 | 13,4 | | 5 |
| Bizkaia | Bermeo | 28,6 | 20,2 | | 3 |
| Bizkaia | Bilbao: Abando-Indautxu-Basurtu | 6,8 | 5,9 | | 13 |
| Bizkaia | Bilbao: Ametzola-Iralabarri-Errekaldeberri | 35,8 | 34,4 | | 7 |
| Bizkaia | Bilbao: Miribilla-San Adrian | 20,4 | 14,8 | | 4 |
| Bizkaia | Bilbao: Otxarkoaga-Txurdinaga-Santutxu-Begoña | 27,8 | 27,5 | | 11 |
| Bizkaia | Bilbao: San Inazio-Deustu | 10,4 | 10,5 | | 8 |
| Bizkaia | Bilbao: Uribarri-Zurbaran | 19,0 | 14,8 | | 11 |
| Bizkaia | Bilbao: Zazpikaleak-Atxuri | 18,4 | 14,1 | | 4 |
| Bizkaia | Durango | 13,8 | 15,8 | | 6 |
| Bizkaia | Ermua | 28,8 | 30,6 | | 5 |
| Bizkaia | Elorrio | 12,7 | 16,3 | | 3 |
| Bizkaia | Gernika - Arratzu | 15,5 | 9,6 | | 5 |
| Bizkaia | Leioa | 7,1 | 6,7 | | 11 |
| Bizkaia | Loiu-Sondika | 15,6 | 2,9 | | 5 |
| Bizkaia | Mungia | 7,5 | 11,3 | | 3 |
| Bizkaia | Muskiz | 17,9 | 10,9 | | 3 |
| Bizkaia | Ondarroa | 25,0 | 8,9 | | 3 |
| Bizkaia | Portugalete | 15,1 | 16,4 | | 9 |
| Bizkaia | Santurtzi | 20,8 | 17,2 | | 9 |
| Bizkaia | Sestao | 34,1 | 31,7 | | 6 |
| Bizkaia | Trapagaran | 23,5 | 16,4 | | 4 |
| Gipuzkoa | Altza-Herrera | 16,5 | 11,4 | Donostia: Ekialde | 3 |
| Gipuzkoa | Antxo-Trintxerpe-San Pedro | 20,0 | 11,4 | Donostia: Ekialde | 3 |
| Gipuzkoa | Andoain | 22,4 | 10,1 | | 3 |
| Gipuzkoa | Arrasate | 25,0 | 23,5 | | 4 |
| Gipuzkoa | Azpeitia | 18,2 | 21,5 | | 3 |
| Gipuzkoa | Beasain | 26,3 | 21,6 | | 4 |
| Gipuzkoa | Bergara | 7,3 | 14,0 | | 4 |
| Gipuzkoa | Donostia: Ekialde | 9,1 | 11,4 | | 15 |
| Gipuzkoa | Donostia: Erdialde | 3,5 | 8,5 | | 9 |
| Gipuzkoa | Donostia: Mendebalde | 3,4 | 4,5 | | 10 |
| Gipuzkoa | Eibar | 33,0 | 20,4 | | 7 |
| Gipuzkoa | Errenteria | 16,0 | 21,0 | | 6 |
| Gipuzkoa | Hernani | 19,0 | 17,4 | | 4 |
| Gipuzkoa | Hondarrabia | 6,5 | 4,4 | | 4 |
| Gipuzkoa | Irun | 17,2 | 17,1 | | 10 |
| Gipuzkoa | Lasartealde | 15,1 | 10,1 | | 3 |
| Gipuzkoa | Oñati | 7,2 | 7,2 | | 3 |
| Gipuzkoa | Tolosalde | 8,4 | 15,0 | | 6 |
| Gipuzkoa | Urretxu-Zumarraga | 29,1 | 22,0 | | 3 |
| Gipuzkoa | Zarautz | 7,6 | 7,6 | | 4 |
| Gipuzkoa | Zizurkil | 4,2 | 9,1 | | 3 |

OHARRA: taula honetan ez dira agertzen ikastetxe 1 edo 2 soilik dituzten eragin-eremuetako datuak.